

2/2020 Instrukzioa, martxoaren 23koa, COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemaileari buruzkoa.

COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemaileak arau berezi batzuen katalogo bat jasotzen du, aldi baterako dena, bi helburu hauekin: batetik, COVID-19 koronabirusak eragindako nazioarte-mailako osasun publikoko larrialdia dela-eta agintari eskudunek hartu behar izan dituzten neurriek sortutako inpaktu ekonomiko negatiboari erantzun azkar bat ematea bereziki enpresa txiki eta ertainei eta langile autonomoei dagokienez, eta, bestetik, zergadunen eskubideak bermatzea salbuespenezko egoera honetan.

Zergapekoei ahalik eta segurtasun juridiko handiena emateko, komenigarria da lehenbailehen zehaztea, eta, kasu batzuetan, argitzea norainokoak diren COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailean jasotako neurriak.

Goian azaldutakoa dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 1. artikulua. Helburua eta aplikazio-eremua.

COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen aplikazio-eremuari dagokionez, kontuan hartu behar da haren bidez, salbuespenez eta aldi baterako, aldatu egiten direla Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren manu batzuk, lurralde historikoko tributu-sistema osoan eragina dutenak.

Ondorioz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 1. artikuluekin eta Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 7. artikuluekin bat, martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailean COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzeko jasotako neurri fiskalak era berean aplikatzekoak dira Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeetan.

Beti ere Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2. artikulua. Tributu-prozedura batzuetan epeen hasiera etetea edo luzatzea.

Lehenengoa. COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2. artikuluko Bat apartatua, hau ezartzen da: indarrean dagoen tributu-araubidearen arabera ofizios hasi behar diren tributu-prozeduretan, hasiera hori eten egingo da 2020ko ekainaren 1era arte, 2020ko martxoaren 16tik aurrera hasi behar diren prozeduren kasuan.



Ondorioz, prozedura horiek hasteko epeen zenbaketa etenda geratuko da, era berean, prozedura epe jakin bat betetzearen menpe dagoenean.

Edonola ere, manu horren bigarren paragrafoak prozedura jakin batzuk salbuesten ditu bertan araututako etetik: zerga-bilketako jarduketak batzuk, kudeaketa- edo ikuskapen-prozeduren ondorioz ireki beharreko zehapen-prozedurak —prozedura horiek hasteko epea ez luzatzearen zergadunen kalterako— eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren likidazio-proposamenak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren likidazio-proposamenak COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriari buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2. artikuluko Bat apartatuaren aplikazio-eremutik salbuetsita, zerga horren arloan ofizios abiarazi nahi da tributu-zorra itzuli edo zenbatzeko prozedura (Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 125. artikulua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 104. artikulua); horren helburua da 2019ko ekitaldiko itzulketak ordaindu ahal izatea, 2020ko maiatzaren 4tik aurrera.

Bigarrena. Zergaren likidazio-proposamenak COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriari buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2. artikuluko Bi apartatuan, aitorpenak eta autolikidazioak modu telematikoan aurkeztera behartuta ez dauden zergadunek aitorpenak eta autolikidazioak borondatez aurkezteko epea arautzen da, eta ezartzen da epe hori, 2020ko martxoaren 16tik 2020ko ekainaren 1era bitartean amaitzen bada, azken egun horretara arte luzatuko dela (2020ko ekainaren 1era arte).

Ondorio horietarako, aitorpenak eta autolikidazioak modu telematikoan aurkeztera behartuta dauden zergadunen kasuan, Zergadun batzuek agiri jakin batzuk Internet bidez telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezarri dituen otsailaren 5eko 342/2008 Foru Aginduaren 2. artikulua adierazten du pertsona hauei aplikatuko zaiela betebeharrak hori:

a) Pertsona juridikoei, erakundeei eta Sozietateen gaineko Zergaren gainerako zergadunei, kontuan izan gabe horiek guztiek beren jardunean besteren konturako zenbat langile erabiltzen dituzten. Honako hauek aurreko letran sartutako joko dira: erakundeak, haien era juridikoa edozein dela ere, fundazioak, elkarteak, irakaskuntzako erakundeak, erakunde erlijiosoak, udalak, mankomunitateak, partzuergoak eta gainerako herri erakundeak, Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztu behar duten ala ez aintzat hartu gabe.

b) Zerga-aholkularitzan diharduten profesionalei, baldin eta Bizkaibai sisteman hirugarrenen izenean telematikoki jarduteko baimena badute.

c) Pertsona fisikoei, ondasun-erkidegoei eta sozietate zibilei, baldin eta besteren konturako hamar langile edo gehiago badituzte. Aurreko paragrafoan aipatzen den besteren konturako langileen kopurua zenbatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ziozko atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpenerako 190 ereduan ageri diren langile guztiak hartuko dira kontuan.

Zergaren likidazio-proposamenak COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriari buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2. artikuluko Bi apartatuan erreferentzia egiten zaie aitorpenak eta autolikidazioak modu telematikoan aurkeztera behartuta ez dauden zergadunei, bertan jasotako neurria zergadun txikiei aplikatzeko, hau da, tributu-ordenamenduak ezartzen dituen karga material eta formalak betetzeko ekonomia- eta antolaketa-ahalmen txikiagoa dutenei.



Hori dela eta, arlo honetan aztertzeko nor dagoen behartuta aitorpenak eta autolikidazioak telematikoki aurkeztera, kontuan hartu behar da zergadun bakoitzaren egoera indibiduala.

Beraz, aurreko b) letrari dagokionez, aitorpenak eta autolikidazioak telematikoki aurkeztera behartuta ez dauden zergadunak sartuta egongo dira COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2. artikuluko Bi apartatuan jasotako neurriaren aplikazio-eremuan (aitorpena edo autolikidazioa egiteko borondatezko epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatzea), nahiz eta Bizkaibai sisteman aholkularitza fiskalerako profesional bati baimena eman dioten euren izenean telematikoki jarduteko.

Logika hori berdin da aplikatzekoa telematikoki bakarrik aurkez daitezkeen aitorpenen eta autolikidazioen kasuan. Beraz, aitorpen eta autolikidazio horiek aurkezteko epea ere 2020ko ekainaren 1era arte luzatuko da, salbu eta a) et c) letretan identifikatutako zergadunen kasuan. Hau da, salbu eta aitorpen eta autolikidazio guztiak telematikoki aurkeztera behartuta dauden zergadunen kasuan, berdin diolarik kasuan kasuko eredia.

Horrez gainera, aitorpenak eta autolikidazioak borondatez aurkezteko epearen luzapenak zergaldia edo likidazio-aldia duten zergei (adibidez, Balio Erantsiaren gaineko Zerga) eta halako aldirik ez dutenei (adibidez, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, establezimendu iraunkorrik ez duten zergadunei dagokionez) eragiten die.

Azkenik, adierazi behar da aitorpenak aurkezteko hemen aztertzen ari den epearen luzapena era berean aplikatzekoa dela aitorpen informatiboan kasuan (esaterako, 720 eredia).

Hirugarrena. Zergaren likidazio-proposamenak COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2.Bi artikuluko Hiru apartatuan hau arautzen da: errekurtsioak edo erreklamazio ekonomiko-administratiboak aurkezteko epeen hasiera edo zergapekoek eskatuta hasi behar den tributuen arloko beste edozein jarduketaren hasiera 2020ko ekainaren 1era arte luzatuko da, tributu-araudian aurkezpen telematikoa nahitaezkozat ezarrita ez duten prozeduretan.

Kontuan hartuta, betiere, Bizkaiko Foru Ogasunari dagokionez ez dagoela betebeharririk errekurtsioak eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak telematikoki aurkezteko, ulertu behar da neurri honek zergapeko guztiei eragiten diela.

COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemaileak ondorioak izaten hasten den egunerako (hau da, 2020ko martxoaren 16a) hasita badaude epe horiek eta oraindik amaitu gabe badaude, ulertuko da etenda daudela 2020ko ekainaren 1era arte.



3. COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3. artikulua. Borondatezko aldiko zenbait eperen amaiera etetea.

Lehenengoa. Zergaren likidazio-proposamenak COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3. artikuluko Bat apartatuan hau jasotzen da: tributu-araubidearen arabera aurkezpen telematikoa nahitaezkoztat ezarrita duten tributu-prozeduren otsaileko autolikidazioak aurkezteko eta sartzeko borondatezko epea (instrukzio honen 2. puntuko bigarren zenbakian azaldutakoarekin bat) 2020ko apirilaren 10era arte luzatuko da.

Ulertu behar da edozein autolikidaziori aplikatu behar zaiola autolikidazioak telematikoki aurkeztera behartuta dauden zergadunek autolikidazioak aurkezteko epearen luzapena, eta ez bakarrik otsailekoei. Hori horrela, adibidez, neurri hau aplikatzekoa izango zaie Sozietateen gaineko Zergaren zergadunei ekitaldia urte naturalarekin bat ez datorrenean, baldin eta borondatez aurkezteko epea 2020ko martxoaren 16tik apirilaren 13ra arte bitartekoa bada.

Horrez gainera, aitorpenak eta autolikidazioak telematikoki aurkeztera behartuta dauden zergadunentzako epea luzatzea aplikatzekoa izango zaie aitorpen informatiboari, informazioa berehala emateko sistemaren (SII) ondoriozkoei barne.

Bigarrena. Zergaren likidazio-proposamenak COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3. artikuluko Bi apartatuan arautzen denaren arabera, likidazioak ordaintzeko borondatezko epea hamabost egun naturalez luzatuko da baldin eta haien epea 2020ko martxoaren 16tik aurrera amaitzen bada.

Manu bereko Bat apartatuan ezarritakoarekin bat, ulertu behar da neurri honek bakar-bakarrik eragiten diela borondatezko epea 2020ko martxoaren 16tik apirilaren 13ra arte amaitzen zaien zorrei.

Zergapeko guztiei aplikatuko zaie Administrazioak eginiko likidazioen ordainketa egiteko borondatezko epearen luzapen hau.

4. COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 4. artikulua. Tributu-prozeduren izapidetzea etetea.

Lehenengoa. Zergaren likidazio-proposamenak COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 4. artikuluko Bat apartatuan hau aurreikusten da: 2020ko martxoaren 16a baino lehen hasi diren tributu-prozeduren etenaldiak etenaldi justifikatutzat joko dira zergapekoaren kasuan, edo, bestela, Zerga Administrazioari egotzi ezin zaion arrazoen ondoriozko luzamendutzat joko dira, eta, beraz, ez dira zenbatuko prozedurak ebazteko epean. Neurri hau ezarriko da prozedura eteten denetik 2020ko ekainaren 1era arte.

Edonola ere, Bizkaiko Foru Ogasunak jarraituko du beharrezkoak diren lanak egiten zergadunek zerga bakoitza dela-eta eskatzen dituzten itzulketei erantzuteko.



Bigarrena. COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 4. artikuluko Bi apartatuak hau adierazten du: dokumentuak, aurrekariak edo tributu-ondorioak dituen informazioa aurkezteko, Administrazioak egindako errekerimendu indibidualizatuei erantzuteko epea eten egingo da 2020ko martxoaren 16tik 2020ko ekainaren 1era arte, aipatutako epea bi data horien artean amaitzen bada.

Epeen eteteak, era berean, eragina izango du alegazioak egiteko eta entzunaldirako izapideetan.

Edonola ere, zergapekoak bere borondatez aurretiaz erantzuten badu edo aurkezten baditu alegazioak, errekerimendua erantzuntzat joko da, edo alegazioak aurkeztutzat.

5. COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 5. artikulua. Tributu-zorren salbuespenezko gerorapena

COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 5. artikulua salbuespenezko gerorapen bat arautzen du ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsonen tributu-zorretarako eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan definitutako mikroenpresa eta enpresa txikien tributu-zorretarako, zor horiek autolikidazioen edo likidazioen ondoriozkoak direnean eta ordaintzeko borondatekoa epea 2020ko martxoaren 16tik ekainaren 1era bitartean amaitzen bazaie.

COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 5. artikulua ez du ezartzen salbuespenezko gerorapena borondatezko ordainketa egiteko epearen barruan ezinbestez egin behar denik, baizik eta bakarrik ezartzen du zor horiek borondatez aurkeztu eta sartzeko epeak edo ordaintzeko epeak data horien bitartean amaitu behar duela.

Hala ere, edozein kasutan, bide honen bitartez geroratutako zorrak ordaintzeko epea betiere hasiko da zenbatzen aitortu eta sartzeko borondatezko epea edo ordaintzeko borondatezko epea amaitzen denetik.

COVID-19aren ondoriozko larrialdi sanitarioak eragindako errentatzaileen eta errentarien artean akordioak lortzea errazteko, COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 5. artikulua honetan ezarritakoaren ondorioetarako, merkataritza-lokalen errentatzaile diren pertsona fisikoak jarduera ekonomikoa duten pertsona fisikotzat hartuko dira lokal horien errentamenduen ondoriozko zorrei dagokienez. Zehazki, errentamendu horiei dagokien Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren martxoaren 18ko 663/2020 Foru Agindua (zeinaren bidez salbuespenezko ordainketa-gerorapena ezartzen baita makina edo aparatu automatikoak erabiliz egiten den jokoaren gaineko tributurako eta tributu horren gaineko errekarurako) apirilaren 11ko 920/1997 Foru Aginduan zerga horiek helbideratzeko araututako berezitasunak direla-eta eman zen. Bada, ordaintzeko epeei eta moduari dagokienez, foru agindu horretako zergadunei ezin izango zaie aplikatu COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 5. artikuluan tributu-zorrak ordaintzeko ezarritako salbuespenezko gerorapena.



6. COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 7. artikulua. Premiamendu-probidentzien jakinarazpena aldi baterako etetea.

Zorrak ordaintzeko borondatezko epean sartzen ez badira, epe hori igarota automatikoki hasiko da epe exekutiboa (Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 165.2. artikulua). Hala ere, borondatezko epea 2020ko martxoaren 16tik ekainaren 1era arte amaitzen bada, tributu-administrazioak premiamendu-probidentzia emango du, berandutze-interesik sor ez dadin, baina ez du hura jakinaraziko 2020ko ekainaren 1era arte. Beraz, ordura arte ez da hasiko premiamenduaren aldia (Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 171. artikulua).

Bilbon, 2020ko martxoaren 24a

OGASUNeko ZUZENDARI NAGUSIA

Sin.: Iñaki Alonso Arce.